

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Instituzioekiko harremanetarako landutako hizkuntzaren ezaugarriak zuzen aplikatu, ezagututako eta emandako testuetan nahiz norberak sortutakoetan.	<p>1.1. Erakundeekin harremanetan jartzeko hasierako eta amaierako agurrak egoki sailkatu eta zuzen idazten ditu (dagozkien puntuazio-ikurrak gehituz).</p> <p>1.2. Laburtzapenak motaren arabera bereizi eta zuzen idazteko arauekin erlazionatzen ditu.</p> <p>1.3. Data, helbide eta orduak zuzen idatzi eta deklinatzen ditu.</p>
2. Hitzen esanahia deduzitu, ageri direneko testuinguru semantikoa eta euren jatorria nahiz osaketa kontuan hartuz, eta norberaren testuetan erabili.	<p>2.1. Hitz-elkartuak, eratorriak eta maileguak bereizten ditu. Kategoría gramatikalak bereizten ditu eta horren arabera analisisa egiteko gai da.</p> <p>2.2. Testuan nabarmendutako hitz elkartu, mailegu edo hitz eratorrien esanahia ondorioztatu eta definizioa egoki idazten du.</p>
3. Instituzioekiko harremanetan, komunikazio-asmo jakin bati erantzuteko egokiena den testu-generoa hautatuz, testu-genero horri dagokion egitura-osagai bakoitzaren funtzioaren arabera edukia sortu eta antolatu.	<p>3.1. Hizkuntza-funtzio bakoitzerako testu-mota egokia idazten du. (gonbidapenak, eskaerak, erreklamazioak...)</p> <p>3.2. Testuak dagozkien egiturak erabiliz osatzen ditu, beti ere helburua kontuan izanik.</p> <p>3.3. Emaniko testuen komunikazio-asmoa idatzi eta egoki justifikatzen du, testuko adibideak baliatuz.</p>
4. Emandako ideien artean dagoen erlazio semantikoa identifikatu eta erlazio logikoa adierazteko landutako baliabide anitzak (hitzezkoak eta hitzezkoak ez direnak) aplikatuz, erlazio hori duten ideiak hainbat modutara adierazi.	<p>4.1. Erreklamazio-orri baten, gonbidapen baten eta eskabide-gutun baten egiturako osagaiak identifikatu eta egoki antolatu, ordenatzen ditu.</p> <p>4.2. Elkarren artean kausa-ondorio erlazioa duten informazioak identifikatu eta hizkuntza-baliabide egokiak erabiliz josten ditu, paragrafo bat osatuz.</p> <p>4.3. Kausa-ondoriozkoa ez den testu-antolatzaile batez adierazi arren, oinarrian kausalitate erlazioa duten informazioak identifikatzen ditu.</p> <p>4.4. Informazioak testu-antolatzaileekin jostean puntuazio ikurrak zuzen idazten ditu.</p>
5. Iturri digitaletan helburu jakinen zein norberaren beharren aurrikuspenekiko garrantzitsua den informazioa hautatu, antolatu eta erregistratu.	<p>5.1. Iturri digitalak identifikatu eta baloratzen du egokitasunaren eta fidagarritasunaren baita.</p> <p>5.2. Informazioa hautatzen du, norberaren beharren aurrikuspenaren arabera.</p> <p>5.3. Informazioa antolatu eta erregistratzen du, finkatutako irizpideen arabera.</p>
6. Geroz eta autonomia handiagoa erakutsi norbere ikaskuntza-prozesuaren autorregulazioan, ikasitako eta egindakoaren kontzientzia hartuz eta hobekuntzarako erabakiak hartuz.	<p>6.1. Unean uneko ikaskuntzen jakakuntzari buruzko hausnarketa egin eta erabakiak hartzen ditu.</p> <p>6.2. Finkatutako irizpideekiko berrikusketa partekatuan, baloratzen du bere lan egiteko modua, bere lanaren emaitza, kidearen lan egiteko modua, eta emaitza eta erabakiak hartzen ditu.</p> <p>6.3. Bere nahi, behar, premia, aurrikuspenekiko hausnarketa egin, eta erabakiak hartzen ditu.</p>

7. Euskaltzaindiako zenbait arairen ezagutza landu.	7.1. Irakasleak ikasle bakoitzari Euskaltzaindiak argitaratutako araua(k) emango dizkio. Ikasleak gelan ahozko azalpena egingo die ikaskideei. Erregistro-orrian gordetzeko arduraz izango du. Ebaluazioz ebaluazio proba ebaluagarria egingo du ezagutzak neurtzeko.
8. Irakurzaletasuna sustatzeko hainbat eleberri eskaini eta elkarreraginean arituz tertulia literarioa gauzatu.	8.1. Ikasleek, proposatutako liburuen artean bat hautatu eta tertulia literarioa gauzatzeko taldea osatzen dute. Tertulia literarioa gauzatzen dute.
9. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	8.2. Ikasleak haututako liburu horren harira, ohar kritikoa egiteko aukera izango du. 9.1. Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira. 9.2. Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.